

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

215/2025 Foru Agindua, apirilaren 9koa. Gianfranco Ghiro Alonsoren aldi baterako izendapena Aiarako Kuadrillako idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, 2025eko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin

Aiarako Kuadrillak, 2025eko apirilaren 1eko sarrera datarekin, Aiarako Kuadrillako A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioa den Gianfranco Ghiro Alonsoren aldi baterako izendapena eskatu du, 2025eko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Aiarako Kuadrillako idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, lanpostua hutsik egoteagatik.

Aldez aurretik, estaturako gaikuntza duten funtzionarioei lanpostua eskaini izana argitaratu da 2025eko martxoaren 17ko ALHAOn (31. zk.), eta ez da eskaerarik jaso hartarako eskaintako epean, eta halaxe egiaztatzen da espedientean.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ahalbidetzen du aldi baterako izendapenak egitea, estaturako gaikuntza duten funtzionarioei gordetako lanpostuetan beharrezkoak diren ordezkape-nak egiteko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazio-ko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan jasotzen diren kasuetan.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.1 artikulua arabera, ezinezkoa bada lanpostua estatu-rako gaikuntza duen funtzionario batekin betetzea, toki korporazioek autonomia erkidegoei eskatu ahal izango diete beren funtzionarioetako bat izendatzeko, aldi baterako; funtzionario horrek prestakuntza tekniko egokia izan behar du, eta, ahal den guztietan, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate tituluduna izan behar da. 5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan, A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da betiere.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea-ren 92 bis artikuluan xedatutakoa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (25. artikulua) idatzita utzi zuen moduan, non toki korporazioetan aldi baterako langileak izendatzeko eskumen eremua zehazten baita.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan (ALHAO, 36 zk., 2023ko martxoaren 27koa) jasotzen diren eskudantziak betez, eta nire eskumenekoak diren ahalmenez baliatuz eta haien indarrez, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aiarako Kuadrillako A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioa den Gianfranco Ghiro Alonsoren aldi baterako izendapena egitea Aiarako Kuadrillako idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, 2025eko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Aiarako Kuadrillari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta

hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 9a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA